PROPOSAMENA

# NAZIOARTEKO DISPOSITIBOAK - NS, EEHS eta Frantsesa-EHB sekzio elebidunak - 2021eko batxilergoa

## Batxilergo orokorreko nazioarteko opziora prestatzen duten nazioarteko sekzioak

sekzioak hunkitzen duen herria
edo erakundearekin lankidetzan

**Hizkuntza biziak: hizkuntza eta literatura 4 oren gehiago** sekzioko hizkuntzan (AHB)

**Hizkuntzak ez diren ikasgai (HEDI) 1 edo 2, sekzioko** hizkuntzan irakatsiak, horien artean:

- historia-geografia (irakaskuntza-denboraren erdia - 4 oren - HBan irakatsia)
- zientziak (HBan irakasten den ikasgai komunak baino 1:30 oren gehiago)
- matematikak (HBan irakasten den ikasgai komunak baino 1:30 oren gehiago)

**Ebaluazioa batxilergoan:**

AHBan egiten ziren kontrol jarraikiko proba amankomunen ordez, ebaluazio berezi bat egiten da kontrol jarraikian, Terminalean (*koefizientea 15*)

Ondotik, hautatu diren HEDIen arabera:

- historia-geografian egiten ziren kontrol jarraikiko proba amankomunen ordez, ebaluazio berezi bat egiten da kontrol jarraikian, Terminalean (*koefizientea 15*)
- matematikak eta zientzien kasuan, proba amankomunez gain, kontrol jarraikiko ebaluazio berezi bat egiten da, Lehenean eta Terminalean, (*koefizientea 10*)

**<u>Batxilergo orokor, teknologiko edo profesionaleko diploma</u>** - "nazioarteko sekzioa"

## Europar sekzioak edo ekialdeko hizkuntzen sekzioak (EEHS)

ikastetxe proiektuan

**Hizkuntza biziak: oren gehigarriak EEHSeko hizkuntzan** (A edo B HB)

**Hizkuntzak ez diren ikasgai (HEDI) bat edo gehiago.**
Programaren zati bat EEHSeko hizkuntzan irakatsia da

Irakaskuntza mota guzietan HEDIak posible dira, sekzioko hizkuntzan

**Ebaluazioa batxilergoan:**

Ikasleak EEHSa gainditu ahal izateko, bi baldintza bete beharko ditu:

- gutienez 12/20 lortzea sekzioko hizkuntza biziko kontrol jarraikiko proban;
- gutienez 10/20 lortzea EEHSeko kontrol jarraikiko proban (notaren zenbatekoaren %20, ikasturteko lanaren arabera HBko eta HEDIko irakasleek emana, eta %80 Terminalean ahozko hizkuntza probaren arabera)

*(Nota, hautuzko irakaskuntza gisa kontuan hartua)*

**<u>Batxilergo orokor, teknologiko edo profesionaleko diploma</u>**

- "europar sekzioa" edo "ekialdeko hizkuntzen sekzioa"

## Frantsesa - eskualdeko hizkuntza sekzio elebidunak *

**Eskualdeko hizkuntza:** gutienez 3 oren kurtso eskualdeko hizkuntzan (EH) (ez BHBan eta CHBan) (1)

**Hizkuntzak ez diren ikasgai (HEDI) bat edo gehiago** eskualdeko hizkuntzan irakatsia(k), oren parekotasunera iritsi arte (2)

**Ebaluazioa batxilergoan:**

**HEDI:** Ikasleak HEDIa gainditzen du, kontrol jarraikiaren proba berezian gutienez 10/20 lortzen baldin badu. Proba horrek, HEDIan hizkuntzaren jabetze maila neurtzen du (notaren zenbatekoa, %20, ikasturteko lanaren arabera HBko eta HEDIko irakasleek emana, eta %80 Terminalean ahozko hizkuntza probaren arabera).

*(Nota, hautuzko irakaskuntza gisa kontuan hartua)*

**Eskualdeko hizkuntza:** ikaslearen hautuaren arabera
-> BHB gisa
-> CHB gisa

**<u>Batxilergo orokor, teknologiko edo profesionaleko diploma</u>**

- "fr/euskara eskualdeko hizkuntza sekzio elebiduna" aipamena

**Glosarioa**

- **NS: Nazioarteko Sekzioa**
- **EEHS: Europar eta Ekialdeko Hizkuntzen Sekzioa**
- **EHB: Euskaldeko Hizkuntza Bizia**
- **HEDI: Hizkuntzak Ez Diren Ikasgaiak**
- **HB: Hizkuntza Bizia**
- **AHB: A Hizkuntza Bizia**
- **BHB: B Hizkuntza Bizia**
- **CHB: C Hizkuntza Bizia**

(1) Eskualdeko hizkuntzaren irakaskuntza: xehetasunak

- Maila xedea (ik. 2017/04/12ko zirkularra)
  - B2 hizkuntza jarduera guzietan
  - C1 jarduera batzuetan
- Sail elebiduneko berariazko ikasle taldeak, ez nahasiak EHB hautuzko ikasgaia dutenekin
- Diruketa bereziak EHBko 3 oren gehigarriak finantzatzeko bideratuak

(2) HEDI(ar)en irakaskuntza: xehetasunak

- Izan daite(z)ke:
  - ikasgai amankomunetan
  - espezialitateko ikasgaietan
- Oren parekotasuna xede duen irakaskuntza elebiduna:
  - euskara: 3 oren
  - 3 HEDI ikasgai amankomunen artean:
    - Histo/Geo – herritar heziketa: 3:30 oren
    - GKH: 2 oren
    - Zientzia irakaskuntzak: 2 oren
- Diruketa berezia bideratua
- Postuen profilatzea, HEDIak EHBan irakasten hasteko eta/edo egonkortzeko

* <u>Erreformak sortzen duen arazo nagusia sekzio elebidunetan</u>: <u>ez du marko berezirik finkatzen eskualdeko hizkuntza irakasteko</u>. Zuzenbide erkidearen markoan sartzen dira (BHB edo CHB), honako ondorioekin:

- Ez du 2017ko apirilaren 12ko zirkularra errespetatzen, honek, ibilbide elebiduna “hizkuntza-ibilbide berezia” dela badio ere, baldintza hauetan:
  - xedetzat den hizkuntza maila: B2/C1 izatea zirkularraren arabera, B1 BHBaren edo CHBaren kasuan
  - eskualdeko hizkuntzaren oren kopurua: 3 oren zirkularraren arabera, 2:30 oren 2.ean eta 2 oren 1.ean eta Terminalean, BHBaren kasuan (3 oren CHBaren kasuan).
- Balio zinez apala batxilergoan (%1 baino gutiago) eta lehen baino apalagoa CHB gisa hartua baldin bada (goragoa BHB gisa hartua baldin bada)
- Sail elebiduneko ikasleak eta bigarrenean euskara ikasten hasten direnak nahasiak izatea
- Lehian ezartzea atzerriko hizkuntzekin